

# Emakumeak askeago lirateke

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

OINARRIZKO ERRENTAK nola lagun dezake emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak leuntzen? Galdera horixe egin diogu Carme Porta editore eta komunikazio adituari. Kataluniako Generalitatean Herritarren Eskubide eta Familia Politiken Idazkaritzan egin zuen lan eta diputatu ohia da. Parlamentean HEB, Herritarrentzako Errenta Bermatua (Renta Garantizada de Ciudadanía) aurkeztu duen batzordeko kidea da. Portaren ustez, ez Herritarrentzako Errenta Bermatuaren bidez, ez errenta unibertsalaren bidez, ezin da bermatu gizonen eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna. Errentak alderdi ekonomikoa hartzen du kontuan eta genero arteko desberdintasunek ez dute oinarri ekonomikoa soilik, inondik ere. Hala ere, hilero errenta finkoa izateak bestelako posizioa eramango lituzke emakumeak.

Kataluniako biztanleen laurdena pobrezia egoeran dagoela dio Portak, eta pobrezia jasateko arrisku handiagoa dute emakumeek (%43,5) gizonen (%39,8) baino. Adin tartea zehaztuz, bazterketa sozialerako arrisku gehiago dute 65 urtetik gorako emakumeek. Haien atzetik datoz emakumeak buru diren guraso bakarreko familiak, haurrak edota dependentsia egoeran dauden pertsonak haien kargu dituztenak.

Herritarrentzako Errenta Bermatua moduko neurri ekonomikoek emakumeen egoera makurrenak



Emakumeek gizonen baino usuago izaten dituzte lan kaskarrak. Argazkian, Elizondoko Joaquín Iriarte zahar etxeko langileak (ia denak emakumeak) protestan.

leuntzeko balioko lukete, muturreko pobrezia saihesteko. Hortaz gain, emakumeen jabekuntzan aurrerapasoak emateko aukera zabaltzen du eta eskubide guztiak dituzten herritar gisa onarpen soziala irabaziko lukete. Ekonomi-

**“Lan prekarietatearen ondorio gordinak murriztuko lirateke, zeren emakume langileak errenta eskuan izanda, etorkizun hurbilean behintzat bere gustuko erabakiak hartzeko aukera izango luke”**

Carme Porta, editorea

koki autonomoago izanda, erabakiak askeago hartzeko aukera lukete emakumeok. Portak dioenez era askotako egoeretatik egingo luke ihes emakumeak: “Bortizkeria matxistatik ihes egiteko balio dezake, soldata baxuak saihesteko, bestelako lan bat bilatzeko... Pobrezia ekonomikoaren eta gizartean ikusezinak izatearen ondorioz, emakumeok bizitzan aukeratzeko egiatzko askatasunik ez daukagu eta desberdintasunak gogortu egin dira”. Langabeziaren eta lan prekarietatearen ondorio gordinak murriztuko lirateke, zeren emakume langileak errenta eskuan izanda, etorkizun hurbilean behintzat bere gustuko erabakiak hartzeko aukera izango luke. Errenta norberarena litzateke, eta zentzu horretan, familia egitura tradizionalan ez bezala emakumea ikusgarri egingo litzateke.

Etxea eta senideak zaintzea egiteko nagusia izan du emakumeak eta ikuspegi ekonomikotik ez dira kontuan hartuak izan. Errenta finkoak bestelako posizioa emango lioke.

Herritarrentzako Errenta Bermatuaren proposamena Kataluniako Estatutuan jasota dago, baina ez gobernua ez Parlamentak, ez dute garatu. 18 urtetik gorakoentzat eskatzen dute, hilean 650 euro, 12 alditan ordainduta eta norberak eskatu beharko luke. Carme Portak Mexikoko esperientzia praktikoa bat gogorarazi digu. Hiriburuan, Mexiko D. Eren erretiratuek oinarritzko errenta jasotzen dute. ■

